30/1992 Legea, lege hori aldatu zuen 1999ko urtarrilaren 13ko 4/1999 Legea eta bere izaeragatik aplikagarria izan litekeen beste edozein xedapen arau-emaile.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2016ko otsailaren 12an.

Enplegua, Gizarte Inklusioa
eta Berdintasuna, Sustatzeko foru diputatua,
TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

(I-251)

nistrativo Común, la Ley 4/1999, de 13 de enero de modificación de la Ley 30/1992 y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pueda resultar de aplicación.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente orden foral entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 12 de febrero de 2016.

La diputada foral de Empleo,
Inclusión Social e Igualdad,
TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

(I-251)

## Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 16/2016 FORU DEKRETUA, otsailaren 9koa, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duena.**

ZIOEN AZALPENA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen dituen Ahaldun Nagusiaren 2015eko uztailaren 2ko 94/2015 Foru Dekretuaren bidez, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila sortu da, eta haren menpe daude Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusia, Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza nagusia eta Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia.

Halaber, dekretu horren bidez, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari atxiki zaizkio Azpiegiturak, S.A., Beaz, S.A., Interbiak, S.A., Seed Capital Bizkaia, S.A., eta Seed Capital Bizkaia Mikro, S.A., merkataritzako foru sozietateak.

Herritarren eta Bizkaiko ekonomia-sarearen zerbitzura dagoen tresna bat da Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila eta bere xedea da ekonomiaren suspertze sendo eta iraunkorra sustatzea, kalitateko enplegua sortu ahal izateko eta eskualde eta udalerri guztiek duten ahalmen guztia garatzeko aukera izan dezaten eta garapen hori orekatua izan dadin.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak Bizkaiko lehiakortasuna hobetzea sustatu nahi du eta, horretarako, bere gain hartu ditu bi zeregin osagarri hauek: batetik, nazioarteko harremanak sustatzea, merkatu eta aukera berrietara zabaltzea eta nazioarteko erabakitze-gune nagusiekin harremanetan jartzea, eta, bestetik, eskualde guztietan kalitateko bide-sare oso baten bidez, lurraldea egituratzeko aukera emango duen barruko lotura lortzea, lurraldeko bide-antolaketa zein komunikaziorako bide lasterrekiko lotura bermatzeko, lurraldearen garapen egoki baten barruan.

Gauza bat nabarmendu behar da helburu estrategiko horien garapenari dagokionez: aurrerabide horren oinarria zeharkakotasuna ezaugarri duten printzipio batzuk dira, sailaren programa eta jarduera-eremu guztietan eragiten dutenak. Lau konpromisotan laburbildu daitezke jarduera-printzipiook:

— Oparotasun integratzailearen alde egitea: gizartean eta lurraldean ekitate handiagoa izatea ekarriko duen garapen ekonomikoaren alde, eta pertsonen alde, enpresaren esparruan pertsonek benetan rol nagusia izan dezaten.

— Efikaziaz, eraginkortasunez eta gardentasunez kudeatzea baliabide publikoak, eta kalitatea etengabe hobetzeko sistema bat ezartzea.

— Sail honen jarduerairen helburu direnei zerbitzu ematearen espiritua: herritarrei eta pertsonen erkidegoari, enpresei eta erakundeei.

— Aukera berdintasunaren politika eta generoaren arabera inor ez baztertzeko neurrien estrategia.

## Departamento de Desarrollo Económico y Territorial

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral 16/2016, de 9 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial.**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Mediante Decreto Foral del Diputado General 94/2015, de 2 de julio de 2015 que establece los departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia y sus áreas de actuación y funciones, se ha creado el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial del que dependen las Direcciones Generales de Promoción Empresarial y Desarrollo Económico, de Promoción Exterior y Turismo y de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

Asimismo, el Decreto adscribe al Departamento de Desarrollo Económico y Territorial las sociedades mercantiles forales Azpiegiturak, S.A., Beaz, S.A., Interbiak, S.A., Seed Capital Bizkaia, S.A. y Seed Capital Bizkaia Mikro, S.A.

El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial se configura como un instrumento al servicio de la ciudadanía y el tejido económico de Bizkaia para impulsar una sólida y sostenible reactivación de la economía que permita la creación de empleo de calidad y que todas sus comarcas y municipios desarrollen su pleno potencial y que lo hagan de forma equilibrada.

El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, en su misión de promover la mejora de la competitividad del territorio de Bizkaia, asume dos tareas complementarias: por una parte, la necesaria conexión internacional, la apertura a nuevos mercados y oportunidades y la conexión con los principales centros de decisión internacionales y, por otra parte, una adecuada conexión interna que permita la vertebración del territorio mediante una completa red viaria de calidad en todas las comarcas que garantice tanto la articulación viaria del territorio como su acceso a las vías rápidas de comunicación en el marco de un adecuado desarrollo territorial.

Es preciso destacar que el desarrollo de estos objetivos estratégicos se plantea desde una serie de principios de carácter transversal que inciden en todos los programas y áreas de actuación del Departamento. Principios de actuación que se sintetizan en cuatro compromisos:

— Apuesta por una prosperidad integradora: por un desarrollo económico que aporte mayor equidad social y territorial y por las personas y su protagonismo efectivo en el ámbito empresarial.

— La eficacia, la eficiencia y la transparencia en la gestión de los recursos públicos, estableciendo un sistema de mejora constante.

— El espíritu de servicio a la ciudadanía y a la comunidad de personas, empresas e instituciones, a quien se dirige la actuación del Departamento.

— La política de igualdad de oportunidades y la estrategia de medidas de carácter no discriminatoria en función del género.

cve: BAO-BOB-2016a033

Helburu horiek benetan garatu ahal izateko eta Bizkaiaren ekonomia- eta lurralde-garapenari albait eraginkorren laguntzeko planteatzen da Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendu berria, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.14 artikuluan ezartzen denaren arabera. Horretaz gainera, arau bereko 39. artikuluko a) letrak dioena ere hartu da kontuan: alegia, foru diputatuei dagokiela beren sailaren egitura eta antolamendua onar dezan Foru Aldundiari proposatzea. Baita 60. artikuluak dioena ere, hau da, Foru Aldundiari dagokiola, kasuan kasuko foru diputatuak proposamena eginda, sail bakoitzaren egitura organikoa eta erregelamendu organikoak onestea, eta onespen hori foru dekretu bidez egingo dela.

Horren ondorioz, Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2016ko otsailaren 9ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

*Artikulu bakarra:* Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onestea, foru dekretu honi batzea eta, ondorio guztietarako, haren xedapen zatiari eranstea.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa:* Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko zuzendari nagusiek elkar ordezkatuko dute, beren ardurapeko eginkizun guztietan, haietako bat oporretan, kanpoan edo gaixorik dagoenean.

*Bigarrena:* Oro har, Sail honetako edozein zerbitzutako titularra oporretan, kanpoan edo gaixorik dagoenean, zerbitzu horri atxikitako ataleko buruak hartuko ditu haren eginkizunak. Atalei dagokienez, berriz, atalari atxikita dagoen maila handieneko funtzionarioa izango da ordezkoa, eta, irizpide horren arabera funtzionario batzuk egoera berean badaude, zerbitzuko buruak izendatutakoa.

*Hirugarrena:* Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkarien izendapena (Aldundiari dagokion partaidetzaren arabera), politiken finkatzea eta jarduteko irizpideak proposatuko ditu Sailari atxikitako foru sozietateetan: Azpiegiturak, S.A.; BEAZ, S.A.; Interbiak, S.A.; Seed Capital Bizkaia, S.A., eta Seed Capital Bizkaia Mikro, SA. Gauza bera egingo du Sailaren jarduera-eremuari lotuta dauden eta BFAren partaidetza duten gainerako erakundeetan (haien izaera juridikoa edozein dela ere).

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuaren proposamenaren arabera izendatuko dira erakunde, entitate, elkarte eta sozietate horietan Foru Aldundiak izango dituen ordezkariak, eta, erakunde horietako erabakitze-organoei dagokienez, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren mende egongo dira ordezkariok, informazioa bildu eta erabakiak hartzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko dira beronek xedatutakoaren aurka doazen edo bertan xedatutakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak. Besteak beste, indargabeturik geratuko dira 23/2012 Foru Dekretua, otsailaren 21ekoa, orain arte indarrean egon den Ekonomia Sustatzeko Sailaren egitura organikoa arautzen zuena, eta 155/2012 Foru Dekretua, azaroaren 20koa, orain arten indarrean egon den Herri Lan eta Garraioen Foru Sailaren araudi organikoa arautzen zuena (irailaren 23ko 103/2014 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen dekretu hori).

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantza Sailari erregelamendu hau gauzatzeko behar diren transferentziak egiteko eta, beharrezkoa izanez gero, kredituen habilitazioak eta aurrekontuko doikuntzak ere egin ditzan.

Para lograr el desarrollo efectivo de estos objetivos y contribuir al desarrollo económico y territorial de Bizkaia de la forma más eficaz, se plantea el nuevo reglamento de estructura orgánica del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, de conformidad con lo previsto en el artículo 17.1.14 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como con el artículo 39.a) de la citada Norma Foral, que señala como función de los diputados forales el proponer a la Diputación Foral la aprobación de la estructura y organización de su respectivo departamento y con el artículo 60 que indica que corresponde a la Diputación Foral, a propuesta del diputado o diputada foral correspondiente, la aprobación de la estructura orgánica de cada uno de los Departamentos y de sus Reglamentos orgánicos que se realizará por Decreto Foral.

En su virtud, a propuesta del diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno, en su reunión de 9 de febrero de 2016

DISPONGO:

*Artículo Único:* Aprobar el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, que queda unido al presente Decreto Foral e incorporado a su parte dispositiva a todos los efectos.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera:* Las personas que ocupen las Direcciones Generales del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial se sustituirán entre ellas en casos de vacancia, ausencia o enfermedad, en todas las funciones que les estén encomendadas.

*Segunda:* En general, en los casos de vacancia, ausencia o enfermedad de la persona titular de cualquiera de los Servicios del Departamento, asumirá sus funciones la de la Sección adscrita al mismo que aquella designe. En el caso de las Secciones, corresponderá la sustitución a la persona funcionaria de mayor rango adscrita a la misma, y en igualdad de condiciones según dicho criterio, por la que determine la Jefatura de Servicio.

*Tercera:* El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial propondrá la designación de representantes en nombre de la Diputación Foral de Bizkaia por la participación que a ésta le corresponda, la fijación de políticas y criterios de actuación en las sociedades forales adscritas al Departamento: Azpiegiturak, S.A., BEAZ, S.A., Interbiak, S.A., Seed Capital Bizkaia, S.A. y Seed Capital Bizkaia Mikro, S.A y en las demás entidades participadas que, independientemente de su naturaleza jurídica, se encuentren vinculadas al ámbito de actividad del Departamento.

Las personas representantes de la Diputación Foral en organismos, entidades, asociaciones y sociedades designadas mediante propuesta del diputado de Desarrollo Económico y Territorial dependen, a los efectos de información y decisión, en relación a los órganos decisorios en dichas entidades, del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A la entrada en vigor del presente Decreto Foral quedarán derogadas cuantas disposiciones se opongan o contradigan a lo dispuesto en el mismo. En particular quedan derogados el Decreto Foral 23/2012, de 21 de febrero, que regulaba la estructura orgánica del Departamento de Promoción Económica vigente hasta la actualidad y el Decreto Foral 155/2012, de 20 de noviembre, que regulaba la estructura orgánica del Departamento de Obras Públicas y Transportes, modificado por el Decreto Foral 103/2014, de 23 de septiembre, vigente hasta la actualidad.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Se autoriza al Departamento de Hacienda y Finanzas a efectuar las transferencias y, en su caso, las habilitaciones de crédito y ajustes presupuestarios precisos para dar cumplimiento a este Reglamento.

cve: BAO-BOB-2016a033

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa:* Baimena ematen zaio Herri Lan eta Garraioen foru diputatuari, foru dekretu honetan ezarritakoa garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan.

*Bigarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Bilbon, 2016ko otsailaren 9an.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatua,
IMANOL PRADALES GIL

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

## EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILAREN ERREGELAMENDU ORGANIKOA

I. TITULUA

## EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILA

I. KAPITULUA

### ESKUDANTZIAK ETA ESKUMEN-EREMUA

**1. artikulua**

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari honako jardun-eremu hauek dagozkio:

— Enpresen sustapenarekin zerikusia duten jarduera guztiak bultzatu eta garatzea; enpresa berriak sortzea eta kultura ekintzailea sustatzea; enpresak dibertsifikatzea eta sortzen eta hazten ari diren sektoreak sendotzea; lehiakortasuna hobetzea eta industria sustatzea —batez ere, Bizkaiko lehentasunezko industria-sektoreak—; jakintzaren arloko zerbitzu aurreratuak indartzea; berrikuntza; zientziaren eta teknologiaren arloa bultzatzea; enpresen arteko lankidetza sustatzea, eta eskualdeak eta lurraldea garatzea.

— Bizkaiaren irudia kanpoan sustatzearekin eta turismoa sustatzearekin zerikusia duten jarduera guztiak bultzatu eta garatzea; Bizkaia inbertsioak, talentua, bisitaria eta ekintzak erakartzeko aukera ematen duen lurralde gisa aurkeztea nazioarte mailan; enpresa txiki eta ertainak nazioartekotzeko prozesua sustatzea; jarduera esportatzailea laguntzea; Bizkaiak lehentasunezkoak diren nazioarteko sareetan parte hartzea sustatzea; talentua eta ezagutza sustatzea, baita nazioarte mailan ere, eta artisautza bultzatzea.

— Indarrean dagoen antolamenduak Bizkaiko Foru Aldundiari errepideen arloan aitortutako eskumenak: Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak errepide eta bideak planifikatu, proiektatu, eraiki, kontserbatu, aldatu, finantzatu, erabili eta ustiatzeko eskumen esklusiboa du, baina Euskal Autonomia Erkidegoak lurralde historiko bakoitzeko errepide sare guztiak koordinatzeko dituen eskurantzak aintzat hartuta. Hori guztia honako xedapen hauetan ezarritakoaren arabera: Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a) artikuluaren 8. zenbakia, 7a) artikuluaren 10. zenbakia eta arlo bereko gainerakoak, 1985eko martxoaren 5eko 17/1985 eta martxoaren 12ko 31/1985 foru dekretuak (biak aurreko lege hori garatzeko eman ziren).

— Aldundiak parte hartzen duen eta sailari atxikita dauden erakundeen jarraipena eta kontrola.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera:* Se autoriza al diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial para que dicte cuantas disposiciones fueran necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral.

*Segunda:* Este Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 9 de febrero de 2016.

El diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial,
IMANOL PRADALES GIL

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

## REGLAMENTO ORGÁNICO DEL DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y TERRITORIAL

TÍTULO I

## DEL DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y TERRITORIAL

CAPÍTULO I

### ATRIBUCIONES Y ÁMBITO COMPETENCIAL

**Artículo 1**

Al Departamento de Desarrollo Económico y Territorial le corresponden como áreas de actuación las siguientes:

— El impulso y desarrollo de todas las actividades que tengan relación con la promoción empresarial, la creación de nuevas empresas y la promoción de la cultura emprendedora, la diversificación empresarial y la consolidación de sectores emergentes y en crecimiento, la mejora de la competitividad y el impulso a la industria, con especial atención a los sectores industriales prioritarios de Bizkaia, fortalecer los servicios avanzados en conocimiento, la innovación, el fomento del ámbito científico-tecnológico, la promoción de la cooperación empresarial y el desarrollo comarcal y territorial.

— El impulso y desarrollo de todas las actividades que tengan relación con la promoción de la imagen de Bizkaia en el exterior y la promoción turística, el posicionamiento de Bizkaia a nivel internacional como territorio de oportunidades para la atracción de inversiones, de talento, visitantes y eventos, impulsar el proceso de internacionalización de las pymes, apoyo a la actividad exportadora, promover la participación de Bizkaia en redes internacionales de interés prioritario para Bizkaia, la promoción del talento y el conocimiento y su promoción internacional y el fomento de la artesanía.

— Las competencias reconocidas a la Diputación Foral de Bizkaia por el ordenamiento vigente en materia de carreteras: La competencia exclusiva en la planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de carreteras y caminos, sin perjuicio de las facultades que la Comunidad Autónoma de Euskadi ostenta a fin de coordinar las distintas redes de carreteras de cada uno de los Territorios, todo ello de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7.a) punto 8, 7 a) punto 10 y concordantes de la Ley 27/1993, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, y con los Decretos Forales 17/1985 y 31/1985, de 5 y 12 de marzo, respectivamente, dictados ambos en desarrollo de la citada Ley.

— El seguimiento y control de las entidades participadas por la Diputación y adscritas al Departamento.

cve: BAO-BOB-2016a033

II. KAPITULUA

**OSAERA**

**2. artikulua**

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak honako egitura hierarkiko hau du: hiru zuzendaritza nagusi, hiru zuzendariordetza nagusi, hamabi zerbitzu eta hogeita zortzi atal.

LEHENENGO ATALA

**FORU DIPUTATUA**

**3. artikulua**

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila foru diputatuaren goi-zuzendaritzaren menpean dago, hark beteko baititu, bere eskumeneko arloetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak ematen dizkion eskudantziak.

**4. artikulua**

Foru Aldundiko kidea denez gero dagozkion eginkizunez gainera, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru diputatuak honako eginkizun hauek izango ditu: Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila antolatzea, zuzentzea, ikuskatzea eta haren ordezkari aritzea, bai eta horretarako hartu beharreko erabakiak hartzea ere. Bereziki, ondoko eginbehar hauek ditu:

a) Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko eta haren menpeko nahiz hari atxikitako establezimendu eta organismoetako pertsonalaren goi-mailako agintaritza betetzea. Horretarako, sailaren funtzionamenduari buruzko barruko aginduak, zirkularrak eta jarraibideak eman ahal izango ditu.

b) Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren aurrekontu-proiektua prestatzea eta Foru Aldundiari igortzea, Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrei buruzko proiektuari lotzeko onespena eman dezan.

c) Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren jarduera-programak prestatzea eta Foru Aldundiari aurkeztea, hark onets ditzan.

d) Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren eskumeneko gaietan, administrazio-xedapen orokorrak eta ebazpenak ematea.

e) Antolamendu juridikoak errepideen arloan foru administrazioari ematen dizkionak.

f) Bere eskumenak zuzendari nagusiei eskuordetzea.

g) Indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkion gainerako ahalmen guztiak.

**5. artikulua**

Foru diputatuak, bere eginkizunak betetzeko, zuzendari nagusiak, zuzendariorde nagusiak, zerbitzuburuak eta atalburuak izango ditu laguntzaile. Halaber, haien laguntza izango du Foru Aldundiaren bileretara igorri behar dituen gaiak prestatzeko zereginean eta, oro har, foru diputatuak intereseko deritzen gainerako gai guztietan.

BIGARREN ATALA

**ZUZENDARITZA NAGUSIAK**

**6. artikulua**

Zuzendaritza nagusiak foru diputatuaren menpeko unitate organikoak dira. Besteak beste, honako eginkizun hauek dituzte:

a) Ordezkaritza, txostenak eta azterketak egitea, aholkularitza ematea, goragokoei proposamenak aurkeztea eta beren mendeko barne-organoen jarduerak zuzendu eta koordinatzea.

b) Foru Aldundiak, Ahaldun Nagusiak eta Saileko foru diputatuak ezartzen dituzten politikak gauzatzea, jarduera publikoaren lerroak garatzea eta kudeaketa-helburuak betetzea.

CAPÍTULO II

**COMPOSICIÓN**

**Artículo 2**

El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial se estructura jerárquicamente en tres Direcciones Generales, tres subdirecciones generales, doce servicios y veintiocho secciones.

SECCIÓN PRIMERA

**DIPUTADO FORAL**

**Artículo 3**

El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial depende de la superior dirección del diputado foral quien ejerce, en relación con las materias propias de su competencia, las atribuciones encomendadas en la Norma Foral número 3/87, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

**Artículo 4**

Al diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial competen, además de las funciones que le corresponden como miembro de la Diputación Foral, la organización, dirección, inspección y representación del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, adoptando al efecto las decisiones pertinentes, y en particular:

a) Ejercer la superior autoridad del personal del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y de los establecimientos y organismos que de él dependen o a él se adscriban, pudiendo dictar órdenes internas, circulares e instrucciones respecto al funcionamiento de su Departamento.

b) Elaborar el Anteproyecto de Presupuesto del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y someterlo a la Diputación Foral para su incorporación al Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

c) Elaborar los programas de actuación del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y someterlos a la aprobación de la Diputación Foral.

d) La de dictar las disposiciones administrativas generales y resoluciones en materias propias del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial.

e) Las que el ordenamiento jurídico atribuye a la Administración Foral en materia de carreteras.

f) Delegar sus competencias en las Direcciones Generales.

g) Cuantas otras facultades le atribuya la legislación vigente.

**Artículo 5**

El diputado foral será asistido por las personas titulares de las Direcciones Generales, las Subdirecciones Generales, las Jefaturas de Servicio y las Jefaturas de Sección, en el desarrollo de sus funciones, así como en la elaboración de los asuntos que se remitan por su Departamento a las sesiones de la Diputación Foral, y en general en todos aquellos que el titular del Departamento considere de interés.

SECCIÓN SEGUNDA

**DIRECCIONES GENERALES**

**Artículo 6**

Las Direcciones Generales son unidades orgánicas dependientes del diputado foral a las que corresponden, entre otros, los siguientes cometidos:

a) Funciones de representación, informe, estudio, asesoramiento y propuesta de carácter superior, dirigiendo y coordinando las actuaciones de los órganos internos que de ellos dependen.

b) La ejecución de las políticas, el desarrollo de las líneas de actuación pública y el cumplimiento de los objetivos de gestión establecidos por la Diputación Foral, el Diputado General y el diputado foral titular del Departamento.

cve: BAO-BOB-2016a033

c) Beren eskumenen arloko jardueraren ekimena eta bultzada egitea —Saileko foru diputatuak ezarritako ildoen arabera—, eta atxikita dituzten zuzendariordetza nagusi, zerbitzu eta atalen jardunak bultzatu, kontrolatu eta koordinatzea.

Goian aipaturiko eginkizunez gainera, honako arlo hauen gaineko ardura dagokie zuzendari nagusiei:

a) Beren izendapenaren arabera zuzendaritzaren eskumenekoak diren gaiak planifikatzea, zuzentzea eta ebaztea.

b) Foru diputatuari egoki ikusten dituzten ebazpenak proposatzea, eskumenekoak dituzten eta haien zuzendaritza nagusiak izapidetu behar dituen gaiei dagokienez.

c) Aldundiari obligazio ekonomikorik ez dakarkioten administrazio-prozedurak abiarazi, aztertu eta ebaztea, baldin eta horretarako eskumena beste organoren bati eman ez bazaio dagokion xedapen arautzailearen bitartez.

d) Txostenak eskatzea, izapidetze-probidentziak ematea eta beren ardurapeko administrazio-unitateetan hasitako edo jasotako administrazio-espedienteak bultzatzea.

e) Batzar Nagusiek, Arartekoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako eskaeren erantzunak koordinatzea, zuzendaritzari dagozkion gaietan, eta hartutako erabakien exekuzioaren jarraipena egitea.

f) Foru diputatuari laguntza teknikoa ematea, hark egoki ikusten duen kasu guztietan.

g) Zuzendaritzari atxikitako langileen buru izatea.

h) Beren gain hartzea zuzendaritzari atxikitako zentro eta erakundeen ikuskaritza, zaintza eta kontrola.

i) Zuzendaritzaren jarduera-proiektuak egitea.

j) Zuzendaritzaren aurrekontu orokorren aurreproiektuak egitea.

k) Beren mendeko bulegoen barne araudiari dagokion guztia xedatzea.

l) Beren kargu dituzten zerbitzuak hobetzeko eta perfekzionatzeko berrikuntzak proposatzea eta proposamenok foru diputatuari helaraztea, urtero. Horretaz gainera, zerbitzuon antolamenduari eta lan-metodoei dagokien guztia prestatzea.

m) Foru Aldundiaren Informatika Plana izeneko aurrekontu-egitaraua koordinatzea.

n) Foru diputatuak eskuordetzen dizkion ahalmenak eta diputatuak berak zuzenean agintzen dizkion gainerako guztiak baliatzea.

o) Beren jarduera-eremuarekin zerikusia duten erakunde, organismo eta entitateekin harremanak izatea, elkarren berri izateko eta lankidetzan aritzeko.

**7. artikulua.**

1. 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera, Foru Aldundiaren erabaki baten bidez izendatu eta kargugabetu behar dira zuzendari nagusiak, saileko foru diputatuaren proposamenarekin bat.

2. Foru diputatua ez dagoenean, zuzendari nagusiek izango dute sailaren protokolo-ordezkaritza, bakoitzak bere eskumenen arloaren barruan.

3. Zuzendari nagusiek foru diputatuak eskuordeturik beteko dituzte 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 44. artikuluko 4. zenbakian xedatzen denaren arabera hark ematen dizkien eginkizunak.

c) La iniciativa y el impulso general de la actuación de su área competencial según las líneas marcadas por el diputado foral titular del Departamento, así como el impulso, control y coordinación de las actuaciones de las Subdirecciones Generales, de los Servicios y de las Secciones que les son adscritos.

Además de las funciones citadas, en particular les corresponden a los Directores Generales la responsabilidad de las siguientes materias:

a) Planificar, dirigir y resolver los asuntos que, de conformidad con su nombramiento, sean de competencia de la Dirección General.

b) Proponer al diputado foral las resoluciones que estime procedentes en los asuntos de su competencia y cuya tramitación corresponda a la Dirección General.

c) Iniciar, conocer y resolver los procedimientos administrativos y sus incidencias, que no supongan obligaciones económicas para la Diputación, salvo que dichas facultades estuvieren atribuidas a otros órganos por las disposiciones reguladoras correspondientes.

d) Recabar informes, dictar providencias de trámite e impulso de los expedientes administrativos iniciados o recibidos en las unidades administrativas a su cargo.

e) Coordinar la elaboración de respuestas a las peticiones de Juntas Generales, Ararteko y Tribunal Vasco de Cuentas Públicas correspondiente a la Dirección y realizar el seguimiento de la ejecución de los acuerdos adoptados.

f) Prestar asistencia técnica al diputado foral en cuantos asuntos éste lo estimare conveniente.

g) Ejercer la jefatura del personal adscrito a la Dirección.

h) Asumir la inspección, vigilancia y control de los centros y organismos afectos a la Dirección.

i) Elaborar los proyectos de actuación de la Dirección.

j) Elaborar los anteproyectos de Presupuestos Generales de la Dirección

k) Disponer todo lo referente al régimen interno de las oficinas a su cargo.

l) Proponer las reformas encaminadas a la mejora y perfeccionamiento de los Servicios a su cargo, y elevarlas anualmente al diputado foral, preparando todo lo relativo a su organización y métodos de trabajo.

m) Coordinar el programa presupuestario denominado Plan Informático Foral.

n) Ejercer las facultades delegadas por el diputado foral y aquellas otras que el mismo directamente le encomiende.

o) Mantener relaciones de información recíproca y colaboración con instituciones, organismos y entidades afines a su ámbito de actuación.

**Artículo 7**

1. De conformidad con lo establecido en el artículo 41 de la Norma Foral número 3/87, de 13 de febrero, las personas titulares de la Direcciones Generales serán nombradas y cesadas por acuerdo de la Diputación Foral, a propuesta del diputado titular del Departamento.

2. Las personas titulares de la Direcciones Generales, en ausencia del diputado foral, ostentarán la representación protocolaria del Departamento, dentro del ámbito de sus respectivas competencias.

3. Las personas titulares de la Direcciones Generales ejercerán, por Delegación del diputado titular del Departamento, las funciones que éste les confiera al amparo de lo dispuesto en el artículo 44.4 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero.

cve: BAO-BOB-2016a033

HIRUGARREN ATALA

**ZUZENDARIORDETZA NAGUSIAK**

### 8. artikulua

Zuzendariordetza nagusiak zuzendaritza nagusien menpeko unitate organikoak dira. Besteak beste, honako eginkizun hauek dituzte:

a) Dagokien zuzendaritza nagusiarekin lankidetzan aritzea, zuzendariordetzaren eskumenen barruan jarduteko programak prestatzeko.

b) Zuzendariordetzaren menpeko unitate funtzionalak zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea.

c) Zuzendaritza nagusiari aurkeztea zuzendariordetzaren menpeko zerbitzuak kudeatzeko planak eta helburuak, eta egoki betetzen direla kontrolatzea.

d) Zuzendariordetzaren eskumeneko arloetako xedapen eta araudiak prestatzeko ekimena izatea eta haien ikuskapena egitea.

e) Zuzendariordetzaren programei dagokien aurrekontuaren aurreproiektua aztertu eta prestatzea, bai eta proiektuon gauzatzemailaren eta haietan detektatutako desbideratzeen jarraipena egitea ere.

f) Zuzendariordetzari atxikitako langileen buru izatea eta zuzendariordetzaren barruko lanpostuen zerrenda proposatzea zuzendaritza nagusiari, bai eta, behar denean, haren helburuak banatzea eta birbanatzea ere.

g) Lankidetzan jardutea, bai zuzendaritza nagusiarekin bai foru diputatuarekin, proiektu estrategikoak garatzen eta enpresen arteko harremanak eta hitzarmenak bultzatzen.

h) Zuzendaritza nagusiaren aginduz, zuzendariordetzaren barruko zerbitzuei berez dagozkien arloetan diharduten beste erakunde batzuekiko harremanaz arduratzea.

HIRUGARREN ATALA

**ZERBITZUBURUTZAK**

### 9. artikulua

1. Zerbitzuburuek honako eginkizun hauek dituzte: azterketak, txostenak, aholkuak eta proposamenak egitea goragoko kargudunentzat; beren titulazio espezifikoak ematen dien gaikuntzaren araberako jarduerak zuzenean egitea, eta beren menpeko barne-organoen jarduna zuzendu, sustatu eta koordinatzea.

2. Esleitu zaizkien eginkizunen barruan, zerbitzuburuei dagokie beren mendeko lanpostuak zein izango diren erabakitzea eta haiek zuzendu, gauzatu eta kontrolatzea. Emaitzak kontuan harturik gauzatuko dute kontrol hori, eta zuzenean aplikatuko beren administrazio-unitateetako langileengan.

3. Kasuen arabera, zerbitzuburuak zuzendaritza nagusi edo zuzendariordetza nagusi baten menpe daude. Hona zer eginkizun duten zerbitzuburuek beren eskumenei dagozkien gaietan:

a) Zerbitzuko atalek esku artean darabiltzaten gaiak zuzentzea eta kudeatzea.

b) Foru diputatuari, zuzendaritza nagusiari eta zuzendariordetza nagusiari laguntza tekniko, juridiko eta administratiboa ematea, zerbitzuarekin lotutako gaietan.

c) Foru diputatuari, zuzendaritza nagusiari edo zuzendariordetza nagusiari, kasuan-kasuan, beren eskumeneko gaiak direla-eta egoki deritzoten ebazpena proposatzea, baldin eta gaion izapidetzea zerbitzuaren ardura bada.

d) Beren ardurapeko atalak hobetzeko eta perfekzionatzeko berrikuntzak proposatzea, eta atalon antolamenduari eta lanmetodoei dagokien guztia prestatzea.

e) Zerbitzuaren urteko aurrekontuaren proposamena egitea eta zerbitzuaren aurrekontu-programen gauzatzea zuzentzea.

SECCIÓN TERCERA

**SUBDIRECCIONES GENERALES**

### Artículo 8

Las Subdirecciones Generales son unidades orgánicas dependientes de las Direcciones Generales a las que corresponden, entre otros, los siguientes cometidos:

a) Colaborar con la Dirección General correspondiente en la elaboración de programas de actuación dentro de la competencia de la Subdirección.

b) Ejercer la dirección, coordinación y control de las unidades funcionales dependientes de la Subdirección.

c) Elevar a la Dirección General, para su aprobación, los planes de gestión y objetivos de los servicios dependientes de la Subdirección y controlar el cumplimiento de los mismos.

d) La iniciativa y supervisión de la elaboración de disposiciones y normativas en aquellas materias que sean e competencia de la subdirección.

e) Estudiar y elaborar la propuesta de anteproyecto de presupuesto de los programas correspondientes a la Subdirección, así como el seguimiento de su grado de ejecución y de las desviaciones detectadas.

f) Ejercer la jefatura del personal adscrito a la Subdirección y proponer a la Dirección General la Relación de puestos de trabajo de la Subdirección así como la distribución o redistribución, en su caso, de los objetivos de la misma.

g) Colaborar con la Dirección General y el diputado foral en el desarrollo de proyectos estratégicos y el impulso de relaciones y acuerdos empresariales.

h) La relación con otras instituciones en las materias propias de los servicios de su Subdirección, por encomienda del Director General.

SECCIÓN TERCERA

**JEFATURAS DE SERVICIO**

### Artículo 9

1. Las Jefaturas de Servicio son puestos cuya competencia comprende funciones de informe, estudio, asesoramiento, y propuesta de carácter superior y la directa realización de actividades para las que le capacita específicamente su titulación, dirigiendo, impulsando y coordinando las actuaciones de los órganos internos que de ellos dependen.

2. Las Jefaturas de Servicio son responsables, dentro de las funciones que tienen encomendadas, de la decisión, dirección, ejecución y control de los distintos puestos de trabajo integrados en las mismas, ejerciéndose ese control a nivel de resultados sobre las personas empleadas de sus unidades administrativas.

3. Las personas titulares de las Jefaturas de Servicio dependen, según los casos, de las Direcciones Generales o las Subdirecciones Generales. Las personas titulares de las Jefaturas de Servicio ejercen, en materias propias de su competencia, las funciones siguientes:

a) Dirigir y gestionar los asuntos relativos a las Secciones dependientes de su Servicio.

b) Prestar la asistencia técnico-jurídica y administrativa al diputado foral, a la Dirección General y Subdirección General, en materias relacionadas con su Servicio.

c) Proponer al diputado foral, a la Dirección General o a la Subdirección General, según los casos, la resolución que estime procedente en los asuntos de su competencia y cuya tramitación corresponda a su Servicio.

d) Proponer las reformas encaminadas a la mejora y perfeccionamiento de las Secciones a su cargo, preparando todo lo relacionado a su organización y métodos de trabajo.

e) Elaborar la propuesta del Presupuesto anual del Servicio y dirigir la ejecución de los programas presupuestarios del Servicio.

cve: BAO-BOB-2016a033

g) Foru diputatuak, zuzendaritza nagusiak edo zuzendariordetza nagusiak beren beregi eskuordetzen dizkieten eginkizunak eta indarrean dauden legezko xedapenek ematen dizkietenak.

LAUGARREN ATALA

**ATALBURUTZAK**

**10. artikulua**

1. Atalburuak beren zerbitzuko buruaren mende daude, zuzenean, eta beren ardurapeko administrazio-unitateak zuzendu eta kudeatu behar dituzte.

2. Oro har, honako eginkizun hauek dituzte atalburuek, beren atalaren eskumeneko gaietan:

a) Atalak garatutako jarduerarekin zerikusia daukaten arautegia, azterlanak, txostenak eta xedapenak prestatzea eta zerbitzuburuari proposatzea, onar ditzan.

b) Atalean egiten diren lanak zuzendu eta ikuskatzea, eta bereziki zaintzea administrazio-prozedura betetzen dela.

c) Atalari atxikitako langileak kudeatzea eta haien zuzeneko kontrola egitea, zerbitzuburuaren ikuskaritzaren pean.

d) Atalaren ardurapeko administrazio-espedienteak kudeatzea, kontrolatzea eta haien jarraipena egitea, eta beren eskumeneko gaiak direla-eta egoki deritzoten ebazpena proposatzea zerbitzuburuari.

e) Atalari dagozkion gaietan, barruko eta kanpoko informazio-lanak antolatzea, sailaren web orrian eta intranetean argitaratu ahal diren edukietatik atalari dagozkion gaiekin zerikusia dutenen administrazioa barne.

f) Atalaren jarduerei buruzko urteko memoriaren proposamena prestatzea, eta atalari esleituriko helburuen eta ekintzen jarraipena egitea.

g) Beren atalaren berezko eginkizunak egitea bereziki.

h) Beren nagusiek edo indarreko arauek eta xedapenek atalaren eskumenen esparruan eskuordetzen edo agintzen dieten beste edozein zeregin egitea.

II. TITULUA

**EGITURA ETA EGINKIZUNAK**

I. KAPITULUA

**EGITURA**

**11. artikulua**

1. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila, bere titularraren goi-zuzendaritzapean, honela egituratzen da:

1) Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusia.

1.1) Zerbitzu Orokorren Zerbitzua.

1.1.1) Aurrekontuen Koordinaziorako eta Ekonomiarako Atala.

1.1.2) Antolaketa Sistemen Atala.

1.1.3) Atal Juridiko Administratiboa.

1.2) Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko Zuzendariordetza Nagusia.

1.2.1) Enpresak Sustatzeko Zerbitzua.

1.2.1.1) Enpresa Ekimen Berriak Bultzatzeko Atala.

1.2.1.2) Azpiegituretarako eta Eskualde Estrategiarako Atala.

1.2.2) Berrikuntza Zerbitzua.

1.2.2.1) Berrikuntza eta Lehiakortasuna Bultzatzeko Atala.

1.2.2.2) Berrikuntzak Egiteko Lankidetzarako Atala.

g) Cuantas funciones les sean delegadas o encomendadas por el diputado foral, la Dirección General o la Subdirección General o por las normas y disposiciones vigentes.

SECCIÓN CUARTA

**JEFATURAS DE SECCIÓN**

**Artículo 10**

1. Las personas titulares de las Jefaturas de Sección dirigen y gestionan, bajo la dependencia directa de la Jefatura de Servicio correspondiente, las unidades administrativas de su respectiva responsabilidad.

2. Con carácter general desarrollan, en las materias cuya competencia atañe a su Sección, las siguientes funciones:

a) Elaborar y proponer a la Jefatura de Servicio la aprobación de normativa, estudios, informes y disposiciones relacionadas con la actividad desarrollada por la Sección.

b) Dirigir y supervisar los trabajos realizados en la Sección, prestando especial atención al cumplimiento del procedimiento administrativo.

c) Gestionar y ejercer el control inmediato del personal adscrito a la Sección, bajo la supervisión de la Jefatura de Servicio.

d) Gestionar, controlar y realizar el seguimiento de los expedientes administrativos que sean propios de la Sección, proponiendo a la Jefatura de Servicio las resoluciones que estimen procedentes en los asuntos de su competencia.

e) Organizar las tareas de información, tanto internas como externas incluida la administración de los contenidos editables en la web e intranet departamental, en los asuntos propios de la Sección.

f) Confección de la propuesta de memoria anual de las actuaciones de la Sección y el seguimiento de los objetivos y acciones atribuidas a la misma.

g) El ejercicio particular de aquellas funciones que sean características de la Sección de la que son titulares.

h) Llevar a cabo cualquier otra labor que dentro del ámbito competencial de la Sección, les sean delegadas o encomendadas por sus superiores o por las normas y disposiciones vigentes.

TÍTULO II

**ESTRUCTURA Y FUNCIONES**

CAPÍTULO I

**ESTRUCTURA**

**Artículo 11**

1. El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, bajo la superior dirección de su titular, se estructura de la siguiente forma:

1) Dirección General de Promoción Empresarial y Desarrollo Económico.

1.1) Servicio de Servicios Generales.

1.1.1) Sección de Coordinación Presupuestaria y Economía.

1.1.2) Sección de Sistemas Organizativos.

1.1.3) Sección Jurídico-Administrativa.

1.2) Subdirección General de Promoción Empresarial e Innovación.

1.2.1) Servicio de Promoción Empresarial.

1.2.1.1) Sección de Nuevas Iniciativas Empresariales.

1.2.1.2) Sección de Infraestructuras y Estrategia Comarcal.

1.2.2) Servicio de Innovación.

1.2.2.1) Sección de Innovación y Competitividad.

1.2.2.2) Sección de Colaboración para Innovar.

cve: BAO-BOB-2016a033

2) Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusia.

2.1) Kanpo Sustapenerako Zerbitzua.

2.1.1) Internazionalizazio Atala.

2.1.2) Talentua Sustatzeko Atala.

2.1.3) Informazio Atala.

2.2) Turismo Atala.

3) Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia.

3.1) Bideen Segurtasunerako, Hobekuntzarako eta Modernizaziorako Zerbitzua.

3.1.1) Proiektuen eta Obren Atala.

3.1.2) Bideen Segurtasunerako Atala.

3.1.3) Kudeaketa Administratiboa eta Hitzarturiko Inbertsioak Bideratzeko Atala.

3.2) Ustiapen Zerbitzua.

3.2.1) Ustiapeneko Atal Juridikoa.

3.2.2) Ustiapeneko Atal Teknikoa.

3.3) Desjabetzeen eta Ukituriko Zerbitzuen Zerbitzua.

3.3.1) Administrazio Atala.

3.3.2) Atal Teknikoa.

3.4) Bide-sarea Kudeatzeko Zuzendariordetza Nagusia.

3.4.1) Kontserbazio Zerbitzua.

3.4.1.1) Azpiegituren Atala.

3.4.1.2) Gainegituren Atala.

3.4.2) Plangintza Zerbitzua.

3.4.2.1) Eskaria Kudeatzeko Atala.

3.4.2.2) Tunelen Segurtasuna Zaintzeko Atala.

3.5) Azpiegiturak Garatzeko Zuzendariordetza Nagusia.

3.5.1) Plangintzaren eta Proiektuen Zerbitzua.

3.5.1.1) Plangintza Atala.

